


Gorbeialdea

16,6 km |  JOAN-ETORRIA MODERATUA |  904m |  Walking 2h. 30' |  Running 1h. 40' |  www.walkingandrunning.es




MURUA > GORBEIA (1.481m)






 Gorbeiaiko gallurra



Gorbeia mendi mitikora igoko gara eta bertako gurutze ezaguna ikusiko dugu, Araba eta Bizkaiaren arteko mugan. Hainbat bide daude tontorrera heltzeko; oraingo honetan Muruatik abiatzen dena hautatu dugu. Gorbeiaiko Parke Naturalean gaude; bidezidorren sarea oso handia da eta, gainera, ikusteko moduko hainbat gauza daude: Mairuelegorretako kobak eta oreinen marrualdia, esaterako. Gorbeiairen tontorretik eremu oso zabala ikusten da: Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko mendiak, Demanda mendilerroa eta are Europako mendiak ere.

 Gasteiztik N-622 autobidea hartu eta ondoren A-3608/Gopegi desbideratzea. Gopegi zeharkatu Muruarako noranzkoan (Zigoitia). Herri bukaeran seinaleztatuta dagoen aparkalekua dago, ezkerraldean. Hortik hasten da ibilbidea.

Gorbeia mendi mitikora igoko gara eta bertako gurutze ezaguna ikusiko dugu, Araba eta Bizkaiaren arteko mugan. Gorbeiaiko Parke Naturalean gaude, eta parkean dauden bide guztietan zehar hainbat aukera daude tontorrera iristeko, baina oraingoa Muruan hasten den bideari ekingo diogu. Herri bukaeran, ezkerraldean, aparkaleku bat dago ( 1), eta bertan hasten da Muruako Bidea, ibilbide lasai eta leuna, erraz egitekoa ( 2a) ( 2b). Errepideari jarraituz gero Muruako harrobietatik igotzeko aukera dago.

Lehenengo metroak bide leun batetik igarotzen dira kanadar pasabideak daudelarik, eta Saimendi eta Baltzola zelaletara iristean tontorra adierazten duen seinalea ikusiko dugu ( 3a) ( 3b).

3 kilometro oinez egin ondoren, Peña Rota inguruan bidegurutzeta dago ( 4a)



Walking & Running ARABA-ÁLAVA

(📍 4b); ezkerrean Gorbeia, eskuinean Urtegia izeneko presa, eta urrunean Oketa (1.031 m.). Aldapa zertxobait gehitzen da bista panoramikoak ikusten hasten garen heinean (📍 5). Inguru gogorrena eta jarraituena pasatu ondoren Pagazurriko zelai altuetara iritsiko gara (📍 6), eta urrunean Gorbeia gurutzea ikusiko dugu.

Azken aldapa igo ondoren tontorrera iritsiko gara (📍 7), eta Gipuzkoako, Nafarroako eta Bizkaiko mendiak ikusi daitezke bertatik, baita Demanda mendilerroa eta Europako mendiak ere. Paisaia izugarria ikusiko dugu orientazio mahairen jarraibideak kontuan hartuz. Jaisteko bide berbera egingo dugu, erlaxatuko gaituzten bistak miretsiz.



Interesguneak

- Gorbeia Parke Naturala.
- Albinako, Uribarri Ganboako eta Urrunagako urtegiak.
- Oroko santutegia.
- Mairulegorretako kobak.
- Goiriko ur-jauzia

Ibilbide gehiago hemen

www.alavaturismo.eus
www.gorbeiaeuskadi.com



araba álava
foru aldundia diputación foral

alava
turismo.
eus

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO